

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Behin betiko onartzea auzolanak arautzen dituen udal ordenantza

Udalbatzak, 2014ko azaroaren 22ko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Navaridasko auzolanak arautzen dituen ordenantzari.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean -2014ko abenduaren 3ko ALHAOn, asteazkena (138. zk.), argitaratu zen hari buruzko iragarkia- ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onartzen da ordenantza hori, eta indarrean dauden xedapenek arautzen dutena betez, osorik argitaratzen da haren testua:

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honek, martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, kontzejuenak, 44. artikuluan xedatzen duenari jarraituz, udal auzolanak arautzea eta zehaztea du helburu. Halakotzat ulertzen dira, norberak, Navaridasen, derrigorrean eman behar dituen zerbitzuak.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, ondoko definizio hauek ezartzen dira:

2.1. Auzoko familia: udalerrian, etxe bakar batean bizi den pertsona edo pertsona taldea.

2.2. Egoitzadunak: pertsona edo pertsona taldea, euren artean ahaide izanik edo izan gabe, edozein tituluren bitartez udalerrian etxebizitzaren bat daukana, udal erroldan izena emanda edo eman gabe.

2.3. Auzolana: udalerrian auzokoek edo egoitzadunek egin beharreko lana; lan horren xedeak izan behar du erabilera edo zerbitzu publikorako diren udalaren ondasunen edo erabilera esleiturik dituen ondasunen eraikuntza, konpontze edo mantentze lanak egitea.

Honela sailkatzen dira:

2.3.1 Ohiko auzolanak: urtean zehar egiten direnak, udalaren erabilera eta zerbitzu publikorako ondasun eta zerbitzuak instalatu eta onik zaintzeko.

Auzolanen bidez egin daitezkeen lanak hauek dira:

Udalaren jabetzakoak diren eraikinak eta gune publikoak konpondu, garbitu eta mantentzea.

b) Herri barruko bide publikoak eta horien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

c) Mendi eta ibaietan garbiketa, sastraka kentze eta birpopulatze lanak egitea.

d) Udalaren eskumeneko lurraldean pertsonentzako arriskuak saihesteko lanak egitea.

e) Bideak, landa bideak, baso bideak eta bidezidorrak egin, konpondu eta zaintzea.

f) Hilerria zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

g) Udalerraren onurarako beharrezko izan daitekeen beste edozein ekintza.

2.3.2. Ezohiko auzolanak: hondamendi, uholde, sute edo aurreikusitako beste edozein fenomenoaren ondorioz sortzen diren auzolanak, nahitaezkoak, guztien onerako baitira eta berehala jardutea eskatzen baitute.

3. artikulua. Ezohiko auzolanak egitera behartuta dauden pertsonak

3.1. Auzolanak denoi dagozkigunez gero, nahitaezkoa da, gutxienez, udalerriko familia bakoitzeko kide batek 2.3.2 artikuluan zehaztutako ezohiko auzolanetan parte hartzea, baita egoitzadunak edo udalerrian etxe berean bizi diren egoitzadunetarikoa batek ere. Hala ere, salbuespenak badaude. Hona hemen horiek:

a) Familia, egoitzadun edo egoitzadun talde bateko kide guztiek 18 urtetik behera edo 65etik gora izatea.

Aurrekoa gorabehera, 65 urtetik gorakoak ere ager daitezke auzolanetara beren borondatez, eta eurak ere istripu eta kalteetatik babestuta egongo dira dagokion aseguruarekin.

b) Auzolana egitekoa den egunean aurreko lerroaldean sartu gabeko kideak gaixo edo ezin-durik dituzten familiak.

3.2. Egitekoa den lanaren tamainaren eta hedaduraren arabera, betebeharra duen lagun kopuru jakin bati egin ahal izango zaio deia auzolanerako. Euren trebetasuna eta zenbateraino prest dauden kontuan izanda deituko zaie, besteei ahalik eta eragozpen txikiena eraginez. Dena den, egiten dituzten auzolanak kontuan hartuko dira hurrengoan ezohiko auzolanen deialdi orokorrak egiten direnerako, eta horietara ez joateko aukera izateko.

4. artikulua. Deialdia

4.1. Udaleko alkate-lehendakariak egingo du auzolanerako deia, eta erabakiko du derrigorezkoa ala borondatezkoa den, eta zer lur eremuri eragiten dion; deialdian bertan zehaztuko du zein lan egingo den, non eta zer ordutan hasiko den eta noiz buka daitekeen, bai eta zein lanabes eraman ere, 1. eranskinean ageri den moduan.

4.2. Ohiko auzolanetarako deia ohiko eran eta erakundearen iragarki taulan oharra jarritz egingo da, auzolanetara joateko betebeharra dutenak agertu ahal izateko moduko aurretiaz; salbuespena izango dira ezohiko auzolanak, berezko izaeragatik ez baitute baldintza hori bete beharko.

4.3. Edonola ere, auzolanak garaiz eta arrazoizko epean egin ahal izateko eta betebehardunek lan horiek ahalik eta erosoan egin ahal izateko, udalak egoera bakoitzaren larritasuna, eguraldia eta gainerakoak hartuko ditu kontuan.

5. artikulua. Auzolanak nola egin

5.1. Oro har, ezarritako orduan eta adierazitako lekura joanez hartuko da parte auzolanetan, bakoitzak egin beharreko lan motarako aldeztu aurretik zehaztu diren lanabes eta makineria nork berarekin ekarritu.

5.2. Horretarako, auzolanen liburu ofizial bat egongo da, eta bertan aintzat hartu beharreko gorabehera guztiak jasoko dira, 2. eranskineko eredu orrian agertzen den eran.

5.3. Udalak pertsona bat izendatuko du (zinegotzia, udal langilea edo egoitzaduna) auzolanak antolatu eta egiteko, eta berak banatuko ditu pertsonak eta bitarteko materialak haiek modurik egokienean burutu daitezen.

5.4. Auzolanerako unea aukeratzerakoan, ahalegina egingo da udalerrian lan gehien izaten den sasoiari izan ez dadin; asteko zein egunetan egin ere ondo aztertu beharko da, hala auzotarrak nola egoitzadunak, denak agertu ahal izan daitezen.

5.5. Udalak auzolanetan parte hartzen dutenak babestuko ditu. Horretarako, auzolanetatik sor daitezkeen istripu arriskuetatik eta bestelako kalteetatik babesteko asegurua egingo da.

5.6. Auzolanak ez dakar inolaz ere udalaren eta auzolanean parte hartzera behartuta dauden arteko lan harremanik.

6. artikulua. Libre geratzeak

6.1. Auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenek badaukate horretatik libre geratzea, honako eraren batean:

- a) Bere ordeztu lana egin dezakeen beste norbait bidaliz.
- b) Lanordu bakoitzeko 10 euro ordainduz; ordainketa egingo da aldez aurretik likidazioa jakinarazita, behar bezala eta 3. eranskinean zehazten den ereduaren arabera.
- c) Huts egitea arrazoitua izanik, beste auzolan batean parte hartuz, egin gabekoaren ordainetan.

6.2. Erakundeak izendatutako pertsonari bidezko arrazoia adierazi gabe, deitutako auzolanera huts egiten bada, nahiz eta hein batean huts egin bakarrik, artikulua honen 1. paragrafoaren b) idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da eta, ondorioz, hor zehazten den zenbatekoa ordainduko.

7. artikulua. Kalte-ordaina auzolanean parte hartzeagatik

Auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenek horrek eragiten dizkieten kalteen ordaina jaso ahal izango dute, udalak erabakitzen duenaren arabera.

Azken xedapena

Udalbatzak 2014ko azaroaren 22ko osoko bilkuran onartu zuen ordenantza, zein ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko den indarrean eta halaxe jarraituko duen aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.

1. eranskina

AUZOLANEN DEIALDIA ¹

EGUNA ²:

HASIERA ORDUA:

AMAIERA ORDUA:

LEKUA ³:

PARTE HARTZAILEEK EKARRI BEHAR DITUZTEN TRESNAK:

BANAN-BANAN DEITUTAKO PERTSONAK ⁴:

¹ Ohikoa edo ezohikoa (dagokiona).

² Eguna edo egunak (dagokiona).

³ Auzolana hasteko non egon behar den.

⁴ Soilik 5.5 artikulua araberak hala dagokionean.

AUZOLANA:.....1

EGUNA:..... HILA: URTEA:

[illegible]

¹ Auzolanaren xedea.

AUZOLANA:.....1

EGUNA: HILA: URTEA:

[illegible]

¹ Auzolanaren xedea.

3. eranskina

Jakinarazpen eredu, auzolanetara joan beharretik libre geratu izanaren likidazioarena.

Izena¹

Helbidea:

Jaun/andre agurgarria:

Erakunde honetako auzolanen liburuan jasotzen diren datuen arabera, udal honek
(e) ko.....aren.....(e)(a) n²³ egiteko deitutako auzolanera agertu ez den
pertsonetako bat zara; ondorioz, kasuan kasuko ordenantzaren 6. artikuluan xedatutakoa betez,
.....euro⁴ ordaindu beharko duzu, auzolanetik libre geratzeagatik.

Zenbateko hori udalak Kutxabanken duen kontu korrontean sartu beharko duzu eta, horretarako, gehienez, hilabete izango duzu jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Ez baduzu epe horretan ordaintzen (borondatezko epean, hain zuzen), betearazte aldia hasiko da, eta, orduan, dagozkion errekarguekin ordaindu beharko duzu, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ebazpen honek agortu egiten du administrazio bidea, eta berorren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabete, jakinarazte egunaren biharamunetik hasita, edo, bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke lehendakariari, hilabete, jakinarazte egunaren biharamunetik hasita; horren esanbidezko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabete epean, berraztertze errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik hasita, edo, sei hilabete epean, errekurtsoaren ustezko ezespena gertatzen den egunaren biharamunetik hasita.

Ohar garrantzitsua: jakinarazpen hau egiteko, jaso egin dela egiaztatzen duen moduren bat erabiliko da (postaz bidalita, gutun ziurtatu bidez eta jaso agiriarekin; eta gutunaren fotokopia eskuz emanda, interesdunaren sinadurarekin eta jaso egunarekin. Baldin eta etxean ez badago, bertan dagoen beste edozeinek jaso dezake, nor den adierazi ondoren).

¹ Adierazi pertsona interesdunaren identifikazio datuak.

² Auzolanetik libre geratu den eguna edo egunak, hila eta urtea.

³ Adierazi zein lan edo jarduera egin den lan egitetik libre geratutako auzolanean.

⁴ Zehaztu Auzolanen Ordenantzan ezarritako zenbatekoa.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Navaridas, 2015eko urtarrilaren 12a

Alkatea

MIGUEL ANGEL FERNANDEZ GONZALEZ